

URTEKO KONTUAK

1.- Taldearen egoeraren eta negozioen bilakaera

Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2017-2030 aldirako ezarri zuen Plan Estrategikoak eta haren ondoriozko Urteko Kudeaketa Planak jasotzen duena betetzera bideratuta egon da Taldeak 2023ko ekitaldian gauzatu duen kudeaketa.

Zehazkiago, gure jardura nagusietako bakoitzaren garapena ezaugarritu duten bereizgarriak hauek izan dira:

Uraren Ziklo Integrala

- **Hornidura**

2023an, ur-ekoizpena 28.939.303 m³-koa izan da, 2022an baino % 8,54 txikiagoa eta azken bost urteetako batezbestekoa baino % 4,21 txikiagoa. Gauden mende honetako ekoizpen baxuena da, hain zuzen ere.

Alderdi aipagarriena izan da ekoizpena murriztu izana maiatz eta irail artean, ekaineko ekaitzengatik, udakoak izan ohi diren kontsumoak atzeratzea eragin baitzuten, eta irail hasierako euri zakar eta biziengatik, udazkeneko kontsumoaren aldia aurreratu baitzuten. Hartara, 2022arekin alderatuta, bereziki bestelakoa izan zen ekoizpen hori, orduan prezipitazio eskasek eta maiatz eta abuztu arteko tenperatura altuek ekarri baitzuten agorraldia aurreratzea eta kontsumoa handitzea.

Ur-ekoizpen handiena abuztuko laugarren astean egin zen, Iruñerrian izan zen bero-bolada bakarrarekin batera. Zehazki, abuztuaren 22a, asteartea, kontsumo handieneko eguna izan zen, 124.027 m³-rekin. Ur-ekoizpen txikiena, berriz, abenduak 10, astelehena, kontsumo txikiaren eguna izan zen, 53.416 m³-rekin.

Ustiapen-eredua (2+1 EUTE)

Urtean zehar, uraren jatorria hau izan da: Egillor % 33,3 (9.634.510 m³), Urtasun % 39,1 (11.314.048 m³) eta Tiebas % 27,6 (7.990.542 m³).

2023an, ur-ekoizpenari dagokion alderdi esanguratsuena izan da 2+1 ustiapen-eredua lanean hasi izana, hau da, urte osoan soil-soilik edateko uren bi araztegirekin lan egitea eta hirugarrena erreserban uztea. Lanean aritzen diren bi araztegiren ustiapen-eredu hau orain arte azaro eta maiatz arteko aldirako baino ez da erabili izan Iruñerrian (Urtasungo eta Egillorko plantak), ekainetik urrira hirugarren planta (Tiebas) jartzen baitzen martxan, udako hornidura osatzeko.

Eskualdeko hornidura-sarean azken urte honetan zenbait obra egin dira, eta horrek ahalbidetu du aurtengo ekain eta urri artean Egillorko planta, Artetako iturburuko ura tratatzen duena, erreserban utzi ahal izatea, eta uda-sasoi horretan Urtasungo eta Tiebasko plantekin hornitu ahal izatea Iruñerriko Mankomunitateak uraren zerbitzua ematen

duen eremu osoa. Udako eredu honekin eskualdea hornitzeko sistema askoz ere sendoagoa lortzen dugu, eta Artetako iturburuaren emariak, txikitzen joaten diren emariak, bazter utzi ditzakegu eta, gainera, Udarbe ibaian emari ekologikoa bermatu ahal dugu, izan ere, sarritan oso balio baxuetan gelditzen baitzen, agorraldi bete-betean iturburuaren % 80 inguru hartzean.

Beste alde batetik, ustiapen-sistema honekin, gainera, ekoizpen-antolaketa eta giza baliabide eta baliabide teknikoena optimizatzea lortzen da, edateko uren bi araztegitan biltzean jarduna.

Konfigurazio berri honekin, Tiebasko EUTE martxan jartzea programatutakoaren arabera egin zen, maiatzaren 30ean, eta Egillorko EUTE maiatzaren 31n gelditu zen. Tiebasko EUTE 5 hilabetea aritu zen lanean, urriaren 30a arte, eta une horretan hasi zen berriro ere lanean Egillorko EUTE.

Horniduraren kalitate-kontrola

Kalitatea Kontrolatzeko laborategiek ENACen (Egiaztatze Erakunde Nazionala) auditoretza egin dute 2023an eta UNE EN ISO 17025 araua betetzea. Bi laborategi horiek auditoretza gainditu dute, eta egiaztatzearen norainokoa zabaldu dute, hiru EUTEetan edateko uren kalitatea determinatu eta ziurtatzean etengabeko hobekuntza bermatzeko, eta bai araztutako urarena Arazuriko HUAN eta Iruñerriko gainerako hondakin-uren araztegietan eta arazketa sistemetan.

Horniduraren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategian 2023an egindako kontrolak, programatuta zeudenak eta IZSAko hainbat sailek eskatu dituztenak, 85.803 parametro izan dira, 6.736 lagini zegozkionak. Hornidura-sarea kontrolatzeari dagokion informazioa Kontsumoko Uren Informazio Nazionalerako Sistemari inplementatu da (SINAC).

Uraren Osasun Plana

Uraren Osasun Plana hedatzen jarraitu da, 2013an egindako diagnostikoko arrisku adierazgarriak minimizatuta. Urtean zehar egindako mugarri garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira, gauzatutako gainerako proiektuen artean:

- Urtasungo EUTE berritzeko III. fasea gauzatzen ari da. Hain zuzen, errektiboaren aretoa berrituko da eta ozono bidezko tratamendu berria izango da. Aurreikusita dago lanak 2024aren erdialdera amaitzea.

- Osasun Plana 3/2023 Errege Dekretura egokitzean lan egiten ari gara, hornidura-sistemako prozedura desberdinak moldatzeko.

- **Saneamendua eta arazketa**

Arazuriko HUA

Arazuriko HUAN, hondakin-ur influentearen bolumena 2023an 34.669.820 m³ izan da, 2022an baino % 12,3 gehiago eta azken 5 urteetako batezbestekoa baino % 4,9 gutxiago. Urteko karga kutsatzailea 511.612 biztanle baliokidekoa izan da, aurreko urtekoa baino % 1,7 handiagoa.

41.079 tona lohi sortu dira, aurreko urteko 42.041 tonak baino pitin bat gutxiago.

5.499.238 Nm³ biogas sortu dira, 2022an baino % 6,8 gutxiago eta azken 5 urteetako batezbestekoa baino % 0,6 gutxiago. Biogasa erregai moduan erabilita energia elektrikoa ekoiztea horrekin bat etorri da: % 103ko autokontsumoa lortu da, aurreko urteko % 105ekoaren antzekoa.

Arazketaren errendimendu handiei eutsi zaie gai organikoetan eta nutrienteetan, eta, hortaz, Ebroko Ur Konfederazioak ezartzen dituen isurtze-mugak bete dira.

Arazketako lohiak balorizatzea Arazuriko HUAn

Arazuriko HUAn sortutako eta jasotako hondakin organiko guztiak birziklatu dira (41.079 tona lohi eta 7.159 tona hondakin berde). Lohien ekoizpena 2022ko aldi berekoa baino pitin bat txikiagoa izan da (orduan 42.041 tona izan ziren), eta hondakin berdeena, aldiz, 2022ko aldi berekoaren aldean (6.993 tona), pitin bat handitu da.

Lohien % 71 (29.095 tona) Nafarroaren Erdialdeko nekazaritzan aplikatzearen bidez balorizatu dira, eta % 29 (11.984 tona) konpostajeko tratamendu aurreratuan baliatu dira. Tratamendu aurreratuko portzentaje hori eguzkitan lehortzeko prozesuari esker lortu da, lohien kantitate handiago bat tratatzeko bidea ematen baitu.

Konpostaje-prozesua maximizatze aldera, 2021ean, eguzkitan edo eguzki bidez lehortzeko planta pilotua jarri zen abian. Helburua da lohietako ura lurruntzea eta lohi horiek konpost bihurtzea, tratamendu-gaitasuna handituta. 2023an zehar, sortutako lohien % 7 jarri dira eguzkitan lehortzen (2.769 tona), eguzkitan lehortzeko planta batean, eta aurreko urtean, 2022an, baino % 1 gehiago izan da hori.

Nekazaritzan birziklatutako lohien kalitate handiari eutsi zaio, % 17ko materia lehorrarekin eta gai organikoen eduki altuekin (% 70 sms), baina 2022ko balioak baino txikiagoak (% 72). Nitrogenoaren balio emankortzailea % 6,20 sms da eta fosforoarena % 6,40 sms.

Tokiko HUAk

Ezarrita dagoen tokiko arazketa-sistemen kalitatea kontrolatzeko planari eutsi zaio, arazketa-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko eta isurketa-baimenetan ezarrita dauden isurketa-mugak kontrolatzeko.

2023an zehar, tokiko hondakin-uren araztegiek ongi funtzionatu dute. Ezarrita dauden kontrol-guneetan egin da ikuskatzea eta laginak hartzea. HUA txikien kasuan, kontrola biziagoa da, arazketaren etapa desberdinen errendimendua egiaztatzen baita. HUA horietan berberetan, bigarren urtez jarraian, isurketa-baimenak betetzearen kontrola mantendu da, kanpoko lagina hartzearen bidez.

Industria-isurketak

Ezarrita dagoen industria-isurketen kontrola egiteko planari eutsi zaio, saneamendu-sareek eta arazketa-sistemek (Arazuriko HUA eta tokiko araztegi txikiak) ongi funtzionatzen dutela ziurtatzeko. Plan horretan, ekoizpen-prozesuak ikuskatzen dira eta industria-uraren laginak hartzen dira, bai inplikaturako industrietan, bai eta eskualdeko sareko hustubide nagusietan eta industrialdeetan ere. Horrez gain, aholkularitza-lanak egiten dira arazketaren, isurketen kontrolaren eta laginak hartzearen gaian.

Deskribatutako jarduera horiei zerbitzua emate aldera, Saneamenduaren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiak, 2023an zehar, parametroen 102.967 kontrol egin ditu, 10.318 lagini zegozkienak. IZSAren UZI zerbitzuari eta NILSari zerbitzua emateko, ohiko lan-bolumenari eutsi zaio.

Saneamendu eta Arazketa Plana

2021-2024 aldirako III. Saneamendu eta Arazketa Plana betetzeko lantaldearen lanak jarraitzen du. Bertan, hain zuzen, saneamenduaren eta arazketaren gaian hurrengo urteetan gauzatu beharreko lan-ildo nagusiak jasotzen dira. Plana 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren barnean kokatu da, eta jarduketa garrantzitsuenak izango dira tokiko arazketan hobekuntzak egitea, jarduketak egitea Arazuriko HUAn eta kolektore berriak egitea. Beriaindik Biurrun-Olkozterako kolektorea nabarmendu behar da, I. fasea (Tiebas-Campanaseraino) gauzatu dena. Estatuak interes orokorreko deklaratu zuen 2009an. II. fasea 2024an gauzatuko da, Biurrun eta Olkozteraino. Halaber, aipatu behar da lehen seihilekoan Berriobeitiko kolektorea amaitu zela, Arazuriko HUaren eskualde-sarean sartu dena. Kolektore horrek berekin ekarri zuen Berriobeitiko, Berriogoitiko eta Elkarte-Ballariaingo hobiak kentzea.

Saneamendua hobetzen jarraitzeko, urtean zehar Bidaurreta-Ziritza-Etxarriko hustubidearen eta arazketaren obrak bukatu ziren, eta zegozkien hobiak kendu ziren. Egun, tokiko 8 HUA dauzkagu, eta herri horien arazketa hobeaz itateia ekartzen dute.

Arazuriko HUAAn egindako obrekin lotuta, lehen mailako 5. digestorea eraiki izana nabarmendu behar da. Kudeaketa hobeia eta digestio-sistema mantentzea ahalbidetuko du, eta bai prozesua optimizatzea eta biogasa lortzea balorizatzei.

Halaber, aipatzekoa da 2023an Jabari Hidrauliko Publikoaren Araudia aldatu zela, eta horrek aldaketa nabarmenak ekarrii dituela berekin hurrengo urteetan euri-uren kudeaketan.

- **Ibai Parkea**

2023ko ekitaldian, Elortz ibaiaren zatia amaitu eta herriarrentzat ireki zen. Ibai Parkearen barnean sartu diren 7 kilometro inguru dira, hartara, Getze Galarrera iristeko.

Urtean zehar, Ibai Parkearen mantentze-jarduera ohikoak egin ziren, bai hiri-ingurunean eta bai landa-ingurunean ere. Hain zuzen, 2023 honetako jarduketak aipagarrienak hauek izan ziren:

- Ibai Parkeko faunaren jarraipena. Hauek aipatu behar dira:

- Kastoreen jardunaren intentsitatearen jarraipena.
- Hegaztien eta harraparien jarraipena Ibai Parkeko hiri-eremuan eta landa-eremuan.
- Asiako liztortzarra akabatzea, teknika pasiboen eta selektiboen bidez, eraginkortasun-maila handiarekin, Ingurumeneko basozainekin koordinatuta.

Ibai Parkeko berdeguneen mantentze-lanak. Kastorea bertan bizitzearen ondoriozko jarduerak nabarmendu behar dira, zuhaitzetan hautatutako jarduketak egin behar izan baitziren, erortzeko arriskua minimizatzei erabiltzaileentzat. Ondorio hori minimizatzei, moztu ziren zuhaitzak zatikatu egin ziren eta bertan utzi kastoreek jatei. Atarrabian egin ziren mota honetako lan gehienak.

Hiri-hondakinen bilketa eta tratamendua

- **Hiri-hondakinak biltzea**

2023an sortutako etxebizitzetako eta merkataritzako hondakinen kantitatea 144.271 tona izan da. 2022aren aldean, % 0,59 gutxiago da, hain zuzen, orduan 145.127 tona izan baitziren. Horrenbestez, azken urteetan sortutako kantitateak egonkortzen ari direla ikusten da.

Gainerakoen edo errefusaren frakzioa

Gainerakoen frakzioa 62.863 tonakoa izateraino gutxitu da. 2022an 70.742 tona izan ziren, eta, horrenbestez, urte batean % 11,14 murriztu da kantitatea hori. Gainerakoen frakzioaren kantitatea gutxitzen joatea Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema (ESKS) ezartzen hasi zenetik gertatzen ari da. Sistema hori ezarri denetik bildu den errefus kantitatea txikiena bildu zen 2023an, 2020an, sistema hori ezartzen hasi aurreko urtean, bildu zen kantitatea baino % 24,62 gutxiago, hain zuzen.

Gaikako bilketa

81.409 tona bildu dira bereiz, sortutako hondakin guztien % 56,40. 2022an, 74.386 tona izan ziren, hondakin guztien % 51,25. Gaikako bilketan izan den emendatze on hau ere 2021az geroztik Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarri izanari zor zaio, bilketa bereiziaren balioa % 61,3koa izatera heldu baitzen.

Horrenbestez, 7/2022 Legean (Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkular baterako) udal-hondakinak bereiz biltzearen gainean dauden helburuak lortu dira (gutxienez, % 50 2035ean).

- **Paper-bilketa**

2023an, 19.819 tona paper eta kartoi bildu dira edukiontzietan, 2022an bildu zena baino % 5,55 gehiago (18.778 t). Sortutako paper guztiaren % 74,6 da hori, eta atez ate bildutako paperarekin batera, % 76,11 heltzen da, eta, horrenbestez, 1055/2022 Errege Dekretuan ezarritako helburuak gainditzen dira, 2025ean % 75 biltzeko helburuak.

Ontzien kasuan bezala, Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema duten eremuetan papera eta kartoa bereiz botatzea handitu delako emendatu da papera eta kartoa berreskuratzea; izan ere, sistema hori duten eremuetan % 77,1eko berreskuratze-portzentajeak lortzen dira, eta sistema hori ez duten eremuetan % 71,5eko ehunekoak dituzte.

Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezartzen hasi zenetik, edukiontzietan papera eta kartoa biltzea % 17,29 emendatu da, 2020 eta 2023 artean.

- **Ontzien bilketa**

14.525 tona ontzi bildu dira, 2022an bildu ziren 11.681 tonen aldean, % 24,35 gehiago. Edukiontzi horian bildutako materialen emendatze-joerak jarraipena du, horrenbestez; Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarri denetik % 46,94 handitu baita.

2023an jasotako ontzien eta materialen ehunekoa % 43,6 izan da: % 49,6 Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema duten tokietan, eta % 35,9 sistema hori ez duten tokietan.

- **Arropa-bilketa**

Edukiontzietan bereiz bildutako arropari dagokionez, 1.492,55 tona izan dira, 2022an bildu zirenak baino % 9 gehiago (orduan 1.368 tona izan ziren). 2020ko martxoan hasi zen goranzko joerak jarraipena izan du; are gehiago, handitu egin da 2023an, besteak beste, abuztuan 100 edukiontzi gehiago jarri baitziren. Hartara, egun 315 edukiontzi daude arropa, ehunak eta oinetakoak botatzeko.

Edukiontzietan egiten den arropa-bilketa horrez gain, tamaina handikoak biltzean jasotzen da arropa eta bai garbiguneetan ere, eta, hortaz, 2023an guztira bildutako arroparen kantitatea 1.903,5 tona izan da, 2022an baino % 5,5 gehiago (orduan 1.800,65 tona izan ziren).

- **Beiraren bilketa**

Edukiontzietan egiten den beira-bilketari dagokionez, kantitatea 2022koaren antzekoa izan da (% 2 gutxiago), 9.075 tona bildu baitziren. Ostalaritzan bildutako beirarekin batera, 2023an sortutako beiraren % 75 berreskuratzea lortu zen, eta, beraz, ontzietarako eta hondakinietarako Errege Dekretuan 2025erako ezarrita dagoen helburua bete zen.

- **Tamaina handikoen bilketa**

Emausko Trapuketariek egiten duten tamaina handikoen bilketa gorabeherarik gabe egin da urte osoan. 2023an, 3.662 tona jaso dira, 2022an bildu ziren 3.708 tonen aldean. Nabarmendu behar da bildutako material guztien % 81,54 berrerabili edo berreskuratu egin direla.

- **Gai organikoen bilketa bereizia**

2023an, gai organikoen bilketa berezian 16.419 tona jaso dira, aurreko urtean baino % 20,56 gehiago eta 2020an, Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarri aurreko urtean, baino % 79,68 gehiago.

2023an, bildutako gai organikoen kantitate osoa, sortutakoen aldean, % 32,6 izan da. Emendatze hori Edukiontzietarako Sarbidea Kontrolatzeko Sistema ezarrita dagoen tokietan gai organiko gehiago bildu direlako gertatu da (% 40) eta bai oraindik giltza mekanikoa duten edukiontzi itxiekin biltzen den tokietan, aurreko egoeraren aldean, pitin bat gehiago bildu delako (% 19,3). Edonola ere, edukiontzi berri horiekin lortu den emendatzea gorabehera, oraindik ez dira lortu 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Planean ezarrita dauden helburuak: % 50 2020rako eta % 70 2027rako.

BERRESKURATZEA ETA TRATATZEA

2023an berreskuratutako hondakinen kantitatea 66.125 tona da, 2022an berreskuratu ziren 62.433 tonen aldean, % 5,9 gehiago, horrenbestez. Kasuen % 90etan, edukiontzi adimendunak erabiltzeagatik gai organikoen eta ontzien bilketa emendatu delako gertatu da.

2023ko berreskuratze-ehunekoa sortutako hondakinen % 45,83 da, 2022ko % 43,02aren aldean.

- **Bio-hondakinen birziklapena**

Bio-hondakinak berreskuratzeari dagokionez, etxeko eta auzoko konpostajea, gai organikoak edukiontzietan gaika biltzean eta hondakin berdeak kudeatzean lan egiten jarraitzen dugu. Landa-eremuan, hondakin organikoak *in situ* edo bertan kudeatzeko politikak jarraipena du, eta, gainera, bere garaian hondakin organikoak biltzeko 5. edukiontzia jarri zen baina orain erabilera hori egokia ez izateaz gain ingurumen-kostu handia duela ulertu den landa-herrietara zabaldu da.

- Hondakin berdeak

Arazuriko HUAn kudeatu diren hondakin berdeak 7.159 tona izan dira, joan den urtean baino pitin bat gehiago (6.993 tona).

- Etxeko eta auzoko konpostajea/Hondakin berdeak metatzeko eta birrintzeko guneak

2023an, etxeko konpostajerako programan izena emandakoak 3.598 familia ziren, hondakinak beren kasa kudeatzeko kategorian (konposta pila egitea, oiloei edo beste animalia batzuei ematea janari-hondarrak) erregistratuta dauden 790 familiez gain. Kopuru horri auzoko konpostajerako 42 guneak eta auzoko erabilerako konpost-ontzien 34 puntuak gehitu behar zaizkio: 740 familia dira beren hondakinak konpostaje deszentralizatuaren bidez kudeatzen dituztenak.

Aurretik aipatu diren parte-hartzaile horiek guztiak aintzat hartuta, kalkulatzen da 2023an 3.158 tona hondakin organiko birziklatu direla, aurreko urtean baino pitin bat gehiago.

2023an, inauste-lanetako hondakinak landa-eremuan kudeatzeko, hondakin berdeak birrintzeko eta metatzeko guneak instalatzen jarraitu genuen, hartara, hondakin horiek Arazuriko HUAra eraman behar ez izateko. Hartara, inauste-hondakinen edukiontziak lekualdatu behar izatea amaitzeaz gain, eta horrek berekin dakarren CO₂ gasen isurpenen murrizketarekin, etxeko hondakin organikoak kudeatzeko behar den material egituratzailea jartzen da landa-eremuko herriarren eskura.

2023aren amaieran, hondakin berdeak metatu eta birrintzeko 59 gune zeuden, eta, beraz, sortutako inauste-hondakinak bertan kudeatzea bultzatzen ari ziren.

Etxeetako hondakin organikoen kudeaketari dagokionez, nabarmendu behar da 2023aren amaieran auzoko 43 konpost-ontzi zeudela konpostajerako 24 guneetan. Hartara, konposta egiteko edukiera osoa 39.950 litrokoa zen, ia 40 metro kubokoa.

- **Gongorako ontziak hautatzeko planta**

Hondakin arinak hautatzeko plantan 7.458 tona berreskuratu dira, 2022an berreskuratutakoa baino % 13,11 gehiago. Emendatze hori bat dator edukiontzi horian bildutako materiala igo izanarekin, nagusiki, gainerakoen edo errefusaren frakziorako eta gai organikoetarako edukiontzi adimendunak martxan jartzeagatik gertatu den emendatzea. Plantan izan den emendatze honek ekarri du % 46,94 emendatu izana plantan jasotako urteko kantitatea, 2020ko egoeraren aldean.

- **Gongorako zabortegia**

Hondakinak HHTZn ezabatzeari dagokionez, HHTZko zabortegira bideratutako kantitatea 95.638 tona izan dira, 2022an baino % 5,19 gutxiago (100.874 tona). HHTZ 1992an lanean hasi zenetik urte batean isuri den gutxieneko kantitatea da, eta urte batean, 2006an, isuri zen kantitate maximoaren erdia baino gutxiago da (% 55,65 gutxiago), orduan 215.585 tona bideratu baitziren zabortegira. Hala, murrizketa horrek ekarri du 2022an zabortegira 17.664 bidaia egitetik 2023an 16.624 bidaia egitera igarotzea. Hori, era berean, zabortegira joan diren kamioien urteko kopuru txikiena da, 2006an baino % 48 gutxiago.

Gutxitze hori gertatu da, batetik, etxebizitzetako eta merkataritzako gainerakoen frakzioa murriztu delako, materialak berreskuratzea handitu delako, eta, bestetik, industria-hondakinak murriztu direlako, azken urteetan gertatzen ari den moduan. HHTZn zuzenean jasotako industria-hondakinak gutxitu egin dira: 2020an 4.741 tona izan ziren, 2021ean, 4.099 tona, 2022an, 3.768 tona, eta 2023an, 3.013 tona.

- **Iruñerriko Ingurumen Zentroaren proiektua Noain-Imarkoainen**

Irailaren 4an, Iruñerriko Ingurumen Zentroaren 1.1 fasearen obrak hasi ziren Garraioaren Hirian eta 1.2 faseko obretarako baimena jaso zain gaude. Zentroko nabeak altxatzeko fasea izango da, eta aurreikusita dago laster ebaztea. Uste da 2025eko urrian jarriko dela abian azpiegitura.

Eskualdeko Hiri Garraioa

Eskualdeko Hiri Garraioari dagokionez, 2023an garraiatutako bidaiarien behin-behineko kopurua 42.572.792 izan zen, eta hori aurreko urtean baino % 17,5 gehiago izan zen. Era berean, pandemia aurreko egoeraren aldean, 2019aren aldean, % 4,8 gehiago izan zen. Hartara, COVID-19aren koronabirusaren pandemiaren ondoriozko osasun-krisia hasi eta handik hiru urtera gainditu dira garraio publikoaren eskarian izan zituen eraginak.

Zerbitzuaren aldaketekin lotuta, urtarrilaren 12tik aurrera luzatu egin zen ostegun gauetako zerbitzuaren ordutegia, gutxi gorabehera goizaldeko 04:00ak arte, ostiraletan bezala, 00:00ak arte lehenago izaten zen moduan. Zerbitzua luzatzearen arrazoia izan zen ostegun gauetan Eskualdeko Hiri Garraioaren erabiltzaileen mugikortasun-beharrak nabarmen handitu izana. Beste alde batetik, irailaren 1ean, aldaketa batzuk egin ziren L19, L20 eta N10 lineetan, Erripagaña auzorako eguneko eta gaueko zerbitzua hobetzeko.

Inbertsioei dagokionez, uztailaren hasieran jatorri berriztagarriaren bermea duen gas natural konprimatua erabiltzen duten 6 autobus artikulatu sartu ziren zerbitzuan. 2.670.000 euroko inbertsioa izan zuten. Gogoan izan behar da, EHGAN gutxiago kutsatzen duten energien II. plana beteaz, 2022az geroztik erregai moduan gasolioa erabiltzeari uzten ari zaiola erakundea. Beste alde batetik, irailean sartu zen flotan aurtengo aurreikusita dauden 10 autobus elektrikoetako bat, gauez kargatzeko 10 autobus elektriko BEV horietako bat. Gainerako bederatziak 2024an iritsiko dira, atzeratu egin baita. Hala, garajeetan gauez kargatu ahal izateko azpiegitura eraiki da eta inbertsioa 916.327,39 euro izan da. Inbertsio horretarako Garraioen, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Ministerioaren dirulaguntza bat dago, 824.694,65 eurokoa, finantzatu ahal izateko (kostuaren % 90, hain zuzen). Autobus elektrikoan egin den inbertsioa 493.020,00 euro izan da, eta horregatik MITMA ministerioaren 200.000 euroko dirulaguntza jaso dugu.

Ordainbideari dagokionez, martxoaren 1etik aurrera, garraio-txartelak “Recarga TUC” mugikorretarako aplikazioaren bidez (Android eta IOS) eta izen bereko webgunearen bidez telematikoki kargatu ahal izatea martxan jarri zen. Beste alde batetik, lehen seihilekoan EHGAN berritze teknologikoaren 2B fasea amaitu zen eta Nafarroako

Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin lan egin zen urte osoan, Nafarroan garraio-zerbitzua ordainketa digital komun baten bidez egiteko irtenbidea definitzeko, erabiltzaile-kontu batean oinarritutako ordainketa-sistema baten arabera.

Bestalde, Logista enpresak, garraio-txartelak aurrez aurre kargatzeko sarearen esleipendunak, kontratuaren oreka ekonomikoa hausteagatiko ordain-eskaera bat aurkeztu zuen, bai 2022ko azken lauhilekoan (% 30eko murrizketa) eta bai 2023an ere (% 50eko murrizketa) ohiko erabiltzaileen tarifei aplikatutako aldi baterako murrizketen ondorioz. Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek abenduaren 29an egin zuen saioan zati batean eman zion arreta eskaerari, eta kontratua aldarazi zuen ekonomikoki berriro orekatzeko.

EHGaren eta taxiaren geralekuetako hiri-altzarien kontratua dela-eta, markesinetan tinta elektronikoa duten informazio-pantailekin proba pilotu bat egin zen lehen sei hilekoan, eta sarean dauden altzari berde zaharrak ordeztzen joan ziren. Horrez gain, informazioa denbora errealean emateko LCD teknologiako pantaila berriak kokatzen joan ziren.

Zerbitzuko kontratuen gaian, eta Eskualdeko Hiri Garraioaren kontzesioaren kontratua 2023ko apirilaren 30ean amaituko zela aintzat hartuta, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak apirilaren 27an egin zuen saioan adostu zuen kontzesio-kontratuaren prestazioaren jarraitutasuna agintzea hurrengo kontratua gauzatzen hasi bitartean hertsiki beharrezkoa den denboran (ezin izango da hamabi hilabeteko epea gainditu).

Kontratazio-espeditentea ekainaren 15eko Lehendakariaren 263/2022 Ebazpenak hasi zuen, bertan abiarazi baitzen garraio-zerbitzuaren kontzesio-kontratuaren lizitaziorako prozedura. Izapiddeen artean, Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikuluko nahitaezko txostena Ebaluazio Bulego Nazionalari eskatzeko beharrezko dokumentazioa egin zen. Maiatzaren 5ean, Ebaluazio Bulego Nazionalak erantzun-txostena eman zuen, eta bertan ondorioztatu zuen ez zegoela arrisku operazionalako transferentzia nahikorik ulertu ahal izateko lizitazio honen izaera juridikoa kontzesio-kontratu bati zegokiona zela.

Ondorio hori zela-eta, maiatzaren 10eko Lehendakariaren 224/2023 Ebazpenaren bidez, garraio-zerbitzuaren kontzesio-kontratuaren lizitaziorako aurreko espeditentea artxibatu zen eta zerbitzu-kontratu moduan lizitatzeko prozedura abiaraztea agindu zen.

Azkenik, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak maiatzaren 25ean egin zuen saioan Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren kontratuaren espeditentea onartu zuen, eta bai hura arautzeko baldintza-agiria ere. Zehazki, balio zenbatetsi osoa 631.640.098,61 euro izan zen (BEZa kanpo).

Lehiaketa horretara, guztira, 4 enpresa aurkeztu ziren: Transports Ciutat Comtal, S.A.; AVANZA Movilidad Integral, S.L.; Empresa Martín, S.A. y Auto Periferia, S.A. (elkarrekin parte hartu zuten); eta NEX CONTINENTAL HOLDINGS, S.L.U. Mankomunitateko Batzar Nagusiak azaroaren 16an egin zuen saioan kontratua Transports Ciutat Comtal, S.A. enpresari esleitu zion, Kontratazio Mahaiak egin zuen proposamenaren arabera.

Azkenean, kontratua abenduaren 22an sinatu zen, eta 2024ko urtarrilaren 1ean eman zitzaion hasiera.

Eskualdeko Hiri Garraioaren garajeak direla-eta, nabarmendu behar da maiatzaren 25ean jarduteko protokolo bat sinatu zutela Iruñeko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak, Udalak bi lurzati lagatzeko Agustindarren industrialdean, Mankomunitateak Eskualdeko Hiri Garraioaren etorkizuneko garajeak eraikitzeko erabiltzeko.

Ondoren, abuztuan, Iruñerriko Mankomunitateak eta Arapresa, S.L. sozietateak asmoen protokolo bat izenpetu zuten, Agustindarren industrialdearen hirigintza-garapenerako eta industrialde horretan A1 lurzatiaren salerosketarako. Lurzati hori Iruñeko Udalak lagako dituen beste biei gehituko zaie. Hartara, hiru lurzati horien artean 55.195 metro koadroko lursaila edukiko da Eskualdeko Hiri Garraioaren garajeak kokatzeko etorkizunean.

Amaitzeko, eta hainbat konturen barnean, TCC Pamplonak, enpresa horren zati sozialaren batzorde batek, eta Iruñerriko Mankomunitateak, 'Jar zaitez nire lekuan. Egin dezagun bidaia on!' kanpaina aurkeztu zuten ekainaren

amaieran, Eskualdeko Hiri Garraioko bidaietan ohitura onak izateari buruz sentsibilizatzeko asmoarekin.

Era berean, urteko lehenbiziko sei hilekoan, "Iruñerriko hiriarteko garraioaren aurretiko azterlana" egin zen, eta bere xedea izan zen erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko oinarritzko zerbitzu bat proposatzea, errepidekoa, egungo zerbitzuak erreferentzia moduan hartuta eta eskuragarri dauden datuekin, Iruñerri osoan, EHGarren esparrutik kanpo, hiriarteko garraioa antolatu eta orekatzeko bidea emateko.

Taxiaren zerbitzua

Taxiaren zerbitzuari dagokionez, 2023an taxiaren tarifak aldatu egin ziren eta igoera globala % 5,60koa izan zen.

Eskaera nabarmen handitu zela ikusirik, taxiaren zerbitzuaren eskaintza hobetzeko 2022an onartu zen txoke-planaren garapenari dagokionez, ezarri diren neurriak hauek izan dira:

- Lizentzien kontrola egiteko sistema bat ezartzea, aktibitate txikia edo batere aktibitatearik ez dutenak detektatzeko.

2023an zehar, taxi-lizentzien jardueraren informazioa biltzen jarraitu da, datu-base desberdinen bidez. Informazio-iturri horri gehitu beharko zaio tren-geltokiko geralekuan 2023ko azaroan kokatu zen kamerak, matrikulak irakurtzeko kamerak, lortutako informazioa (neurri honen berri aurrerago ematen da).

- Taxiei buruzko Foru Legea aldatzeko neurriak, soldatapeko langileak kontratatzea malgutzeko helburuarekin.

Iruñerriko Mankomunitateak Nafarroako Gobernuaren Garraioko Zuzendaritza Nagusiari aldaketa hori eskatu zion (507/2022 Ebazpena), eta 2023ko azaroaren 22an, zuzendaritza nagusi horrek jakinarazi zuen Taxien uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzeko foru-legearen proiektua egiteko prozedura hasi duela.

- Teletaxi San Ferminen igorgailu-zerbitzua eskuragarri edukitzeko neurriak, soldatapeko taxi-gidariarentzat.

Neurri hau 2022aren amaieran ezarri zen, eta behin betiko sendotu da 2023 honetan.

- 8 eta 9 plazatako baimendutako ibilgailuen kopuru maximoa handitzea.

Neurri hau 2022an ezarri zen (498/2022 Ebazpena), eta ekarri zuen 2023an ezaugarri horietako 4 ibilgailu sartzea zerbitzuan.

- Gutxieneko zerbitzuak ezartzea tren-geltokian, une eta aldi jakin batzuetan.

Jarduketa hau 2023ko otsailaren 20an jarri zen martxan (57/2023 Ebazpena) eta emaitzak onak izan dira 2023an zehar.

Neurri osagarri gisa, 2023ko irailaren 7an, hitzarmena izenpetu zuten Iruñeko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak, Iruñeko sarbide murriztuko eremuetan taxien altak eta bajak kudeatzeko eta taxiaren zerbitzua hobetzeko tren-geltokian. Hitzarmen horrek barne hartzen zuen matrikulak irakurtzeko kamera ba kokatzea, oro har, taxiaren zerbitzua hobeki kontrolatzeko eta, bereziki, tren-geltokian ezarritako gutxieneko zerbitzuak kontrolatzeko. Kamera hori azaroaren amaieran jarri zen, eta informazioa emateko protokoloa garatzen ari gara.

- Tren-geltokiko geralekua egokitzea.

2023an zenbait bilera egin ziren gai hau jorratzeko, eta taxiaren zain egoteko tokian instalatzeko pergola baten diseinua eta zenbatespen ekonomikoa kontratatatu ziren. Hartara, inplikaturik dauden erakunde eta administrazio guztien elkarlanari esker, 2024an kokatu ahal izatea espero da.

- Trenen informazioa lortzeko mekanismoak (okupazioa, iritsiera-ordutegi eguneratuak...).

2023an hainbat bilera egin dira, baina ez da emaitza onik lortu.

- Elkarrizketa zuzena izatea desgaitasuna duten pertsonen elkarrekin, eurotaxi-zerbitzua hobetzeko.

Hainbat bilera egin dira egungo egoera eta txoke-planaren neurri guztiak azaltzeko.

- Zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzea, baimendutako 7 plazatako ibilgailuen kopurua handitzeko.

Neurri honek ahalbidetzen du une jakin batzuetan 7 plazatako zerbitzua ematen duten eurotaxiak liberatzea. 2023ko martxoaren 31n hartu zuen indarra (64. zenbakiko NAO, 2023ko martxoaren 30ekoa).

- 2023an, eurotaxien 20 lizentzia gehiago emateko plana.

Lehen deialdia 81. zenbakiko NAO n kaleratu zen, 2023ko apirilaren 20an. Eskerak aurkezteko epea igaro zen bakar bat ere jaso gabe. Emaitza hori ikusirik, lantalde bat hasi zen, deialdi berri bat hasteko.

Beste alde batetik, taxi-gidari profesionala izateko baimena eskuratzeko probak 2023ko urtarrilaren 14an egin ziren. Onartuta zeuden 75 izangaietatik 51 joan ziren probak egitera eta 44k gainditu zituzten. Halaber, 2023ko urriaren 7an, urteko bigarren probak egin ziren. 96 izangai onartu ziren, 74 joan ziren egitera eta 59k gainditu zituzten. Hortaz, Mankomunitateak eskumenak bere gain hartu zituenetik, taxi-gidari profesionala izateko 1.334 baimen jaulki dira guztira.

Azkenik, 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin zen eta 2023ko dirulaguntzak izapidetu ziren. Horretarako, 2023ko irailaren 25ean eta 27an, 427/2023 eta 434/2023 Ebazpenak kaleratu ziren, ibilgailu ekologikoetarako, segurtasun-elementu eta elementu teknologikoetarako eta gurpil-aulkiko erabiltzaileentzako eurotaxi zerbitzurako dirulaguntzak iragartzeko. Behin prozesua amaituta, emaitzak hauek izan dira:

- Berrikuntzako eta segurtasun-elementuetarako deialdiak lizentzien 3 titularri eman zien dirulaguntza, segurtasun-kamerak kokatzeagatik. Kopuruak 250 eta 500 euro artekoak izan ziren.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako taxi-zerbitzua hobetzeko deialdiak 48.489,04 euro eman zizkien 19 lizentziari, gurpil-aulkian ibiltzen diren erabiltzaileei 14.693 zerbitzu egiteagatik.

Gainera, deialdi hori aldatu egin zen barne hartzeko berariazko dirulaguntzak aurretiko erreserbarekin egindako eta ospitalera joateko zerbitzuengatik gurpil-aulkian ibiltzen diren pertsonentzat. Teletaxi San Ferminen ez zituen eskaintzen lehen zerbitzu horiek eta barne hartu ziren aldaketa horren ondoren.

- Azkenik, ibilgailu ekologikoen deialdiaren barnean, 7 lizentzia diruz lagundu ziren “zero isurpeneko” ibilgailuak erostegatik. Hain zuzen, 840 euro eta 1.700 euro arteko kopuruak eman zitzaizkien.

Ezkaabako Eskualde Parkea

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2023ko maiatzaren 25ean egin zuen saioan, IMk Ezkaabako Eskualde Parkearen kudeaketa egiteko eskuduntza bere gain hartzeko akordioa hartu zen, Nafarroako Gobernuak 2022ko abenduaren 21eko saioan onartu zuen Udalez gaindikiko Plan Sektorialean jasota dagoenaren arabera.

Plan sektorial horren helburua da esparru horretako mendien multzoa planifikatzea, modu integralean, natura- eta kultura-ondarea kontserbatzea bateratuta, erabilerak eta jarduerak erregulatzea, eta bai Ezkaaba mendiaren garrantzia nabarmentzea eta ingurumen-heziketa sustatzea ere.

Udalez gaindikiko Plan Sektorialak jasotzen du parke horren esparru osorako erabilerak eta jarduerak arautzea, udalerrri hauetan: Berriobeiti, Berriozar, Iruña, Antsoain, Atarrabia, Uharte, Ezkabarte eta Txulapain.

Batzar Nagusiaren akordio horretan, zerbitzu berri honetan Mankomunitateak edukiko dituen eskuduntzak onartu ziren, eta bai Ezkaabako Eskualde Parkea zuzen kudeatzeko beharko den finantzaketa ere; esparrua eratzen duten

udal horien konturakoa izango den finantzaketa, zehazki.

Emaiza ekonomikoak

La cuenta de pérdidas y ganancias del Grupo arroja finalmente, para el ejercicio 2023, un saldo positivo de 3.659 m€ (miles de euros).

Este resultado se forma por la agregación de los resultados de las cuentas de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, 2.400 m€, y de la Sociedad Dependiente SCPSA, 1.259 m€. Dadas las diferentes actividades desarrolladas por ambas entidades y, más concretamente, las peculiaridades de los sistemas de financiación de los servicios prestados por cada una de ellas, se ofrecen a continuación sendos análisis explicativos de los resultados correspondientes a cada una de las dos entidades.

SCPSA

La cuenta de pérdidas y ganancias de la Sociedad Dependiente para el ejercicio 2023 arroja, como ha quedado dicho, un saldo positivo de 1.259 m€ (miles de euros). Dada la naturaleza y objetivos de la Sociedad Dependiente, los resultados económicos pueden ser explicados en clave de desviaciones presupuestarias, en tanto que su actividad económica viene orientada por las previsiones presupuestarias iniciales que, confeccionadas con criterios de razonable prudencia, parten del objetivo de equilibrio económico-contable (resultado “cero” de la cuenta de pérdidas y ganancias). Así, se pueden apuntar como aspectos más significativos de la evolución económica del ejercicio y causas principales de la formación del resultado, las siguientes:

- Los ingresos de explotación, excluido el efecto de las periodificaciones de subvenciones, han experimentado, en su conjunto, una realización inferior en 3.533 m€ a la inicialmente prevista, lo que supone un 3,85% menos. En el apartado de “Ventas y prestaciones de servicios” destacan los menores ingresos obtenidos en la venta de energía (3.693 m€) y de la cuota variable por facturación de agua (878 m€) y los superiores a los estimados por los servicios del sistema integral de gestión de residuos (994 m€).
- Los gastos de explotación, excluido el efecto de las amortizaciones, han experimentado, globalmente considerados, un ahorro de 3.480 m€, el 4,2%, sobre las previsiones iniciales. Destacan en este apartado los menores gastos realizados de la energía para el proceso productivo (incluyendo el canon de electricidad de Iberdrola) (2.030 m€), de los trabajos realizados por otras empresas (772 m€), principalmente vinculados a la recogida de residuos, y de tributos (740 m€) por la disminución en toneladas vertidas.
- La desviación neta de amortizaciones y periodificaciones ha supuesto un menor gasto (115 m€).
- Los resultados negativos financieros han sido mejores de lo previsto en 1.268 m€, debido al impacto que ha tenido la actualización financiera de la provisión por desmantelamiento del vertedero y por la remuneración de los depósitos bancarios.

En conclusión, puede afirmarse que, desde el punto de vista de los servicios, se ha mantenido tanto su estructura económica como los criterios de gestión, entre ellos el de prudencia en la presupuestación, en orden a garantizar en todo caso la suficiencia económica de los mismos. Así, la cuenta de resultados del ejercicio presenta unas actividades capaces de generar unos ingresos corrientes que cubren con suficiencia los gastos de funcionamiento de los servicios y de la sociedad dependiente.

MCP

La cuenta de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad arroja, tal y como ha quedado dicho, un saldo positivo de 2.400 m€.

Como cuestión previa, hay que indicar que la naturaleza administrativa de la Mancomunidad, así como de las actividades que realiza, implica la preeminencia de los criterios presupuestarios, en su acepción administrativa,

sobre los económicos en la determinación y análisis de su equilibrio, con las correspondientes diferencias en la imputación temporal de los distintos flujos. De hecho, de haberse cumplido estricta y exactamente las previsiones presupuestarias, equilibradas en gastos e ingresos, la cuenta de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad debería haber arrojado un saldo positivo en 3.284 m€, por lo que el referido resultado positivo de 2.400 m€. supone en realidad una desviación negativa neta de 884 m€ con respecto a las previsiones iniciales del ejercicio.

En orden a su magnitud económica, entrando ya en el análisis y justificación del resultado, la parte principal, con gran diferencia, de la cuenta de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad está relacionada con la gestión del Transporte Comarcal (Transporte Urbano Comarcal y Taxi), actividad que ha registrado además las significativas desviaciones que se describen a continuación:

- Con posterioridad a la aprobación de los presupuestos y del X Plan 2023 de Transporte Urbano de la Comarca de Pamplona, y al objeto de acogerse a las ayudas previstas en el Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, la Asamblea de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona acordó la aplicación desde el 1 de enero y hasta el 30 de junio de 2023 de una reducción del precio de los abonos y títulos multiviaje del 50%, reducción que finalmente ha sido aplicada durante el ejercicio completo al ser prorrogada hasta el 31 de diciembre de 2023 por acuerdo de la Comisión Permanente. Estos descuentos han supuesto una disminución en la recaudación de 6.983 m€ con respecto a la prevista inicialmente, sólo parcialmente compensada por la ayuda reguada en el RDL 20/2022, 2.431 m€, y las mayores aportaciones a la financiación del servicio exigidas por la modificación del X Plan de Transporte y realizadas por Gobierno de Navarra y Ayuntamientos, 1.697 m€. En este punto cabe señalar que no se ha registrado, ni tiene por lo tanto reflejo en la cuenta de pérdidas y ganancias, ningún ingreso de los otros tantos 2.431 m€ que se estima hubiera correspondido recibir por las ayudas del RDL 5/2023, correspondientes a la reducción de tarifas del segundo semestre, al no ser considerada la Mancomunidad como beneficiaria de las mismas en la Resolución de la Dirección General de Transporte por Carretera de 28 de diciembre de 2023; no obstante, por parte de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona se ha proseguido con las actuaciones dirigidas a la reversión de esta situación cuyo desenlace definitivo se espera conocer a lo largo de 2024.
- Otra notable desviación en los ingresos se produce por la nula realización dentro del ejercicio 2023 de los ingresos por adjudicación de 20 nuevas licencias de taxi, previstos inicialmente en 2.400 m€.
- En sentido contrario, la apreciable estabilización del índice de precios y en particular la reducción en los de los combustibles, que tanto habían lastrado las previsiones iniciales, han sido la causa principal del ahorro de 3.595,- m€ registrado en el “coste bruto” de la concesión imputado al ejercicio.
- A lo señalado en los tres puntos precedentes restaría por añadir el ahorro de 431 m€ registrado en la realización de los gastos derivados de las actuaciones gestionadas directamente por la Mancomunidad y los 19 m€ de mayores ingresos relacionados con la gestión del servicio (canones, tasas, sanciones, etc.) para cuantificar en -1.210 m€ la desviación neta, de signo negativo, imputable a la gestión del Transporte Comarcal, aun cuando su contribución al resultado final de la cuenta de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad haya sido positivo en 2.074 m€.

Las actividades propias del sostenimiento de la estructura de la Mancomunidad han registrado, en su conjunto, una desviación neta positiva de 326 m€, lo que reduce la desviación negativa del conjunto de la cuenta de la cuenta de pérdidas y ganancias de la Mancomunidad a los -884 m€ señalados al inicio de este apartado.

En último término, cabe reiterar que las actividades desarrolladas directamente por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona y las fórmulas de financiación de las mismas hacen difícil la aparición de resultados significativos que no obedezcan a simples desajustes temporales entre el reconocimiento de los ingresos y el de los gastos.

2.- EVOLUCIÓN PREVISIBLE

Los aspectos más relevantes de este ejercicio puestos de manifiesto al comienzo de este informe resultan también claramente representativos de las líneas maestras a través de las que se orienta la actuación de este Grupo: infraestructuras técnicamente avanzadas y eficaces, mejora continua en la gestión y explotación de los servicios ya encomendados. Por ello, no parece aventurado señalar que la evolución previsible de este Grupo vaya a presentar las siguientes características:

- La vigencia de las fórmulas de gestión adoptadas y su capacidad de dar respuesta al cumplimiento de los objetivos básicos de los servicios.
- La existencia de una infraestructura material capaz para dar cobertura a las necesidades actuales y cuya calidad, estado de conservación y relativamente escasa antigüedad, unidos al desarrollo permanente de nuevas instalaciones permiten asegurar los niveles actuales de cobertura por un plazo suficientemente largo de tiempo, siempre y cuando se cumplan las previsiones acerca de la disponibilidad de las nuevas captaciones.

En relación con el Mapa Local, se publicó en el BON nº 25, de 6 de febrero de 2019, la Ley Foral 4/2019, de 4 de febrero, de Reforma de la Administración Local de Navarra.

Esta ley foral plantea una organización supramunicipal a través de la figura de la “Comarca”, que será en adelante la encargada de ejercer algunas funciones que hasta ahora se venían realizando por parte de los diferentes Ayuntamientos, Mancomunidades sectoriales y otras entidades análogas creadas en los últimos años en nuestra Comunidad Foral.

El desarrollo de las Comarcas exigirá una nueva Ley Foral que establecerá las condiciones en las que se desarrollará la prestación de los servicios.

En la medida en que Mancomunidad de la Comarca de Pamplona se vea afectada, podrá haber una transformación de la Sociedad Dependiente por la modificación de los servicios prestados y/o la modificación del ámbito de prestación de los mismos. Esta transformación no tendría por qué afectar al principio de empresa en funcionamiento.

A lo largo de esta legislatura del Gobierno de Navarra, hasta el momento no se han desarrollado los términos previstos en la Ley Foral de Reforma de la Administración Local de Navarra.

3.- ACTIVIDADES EN MATERIA DE INNOVACIÓN

STARDUST

Durante 2023 se ha desarrollado según lo previsto la participación del Grupo en el Proyecto europeo HORIZON 2020 STARDUST, a partir de la instalación de la Hidrotermia en la ETAP de Egillor y la electrificación de la Línea 9.

PERTE I (Agua Digital Navarra/ADN)

Presentado conjuntamente con NILSA y la Mancomunidad de Montejurra en materia de digitalización del Ciclo Integral del Agua. Ha sido concedido y se está a la espera del desarrollo de los diferentes hitos del proyecto.

PERTE II

Presentado el año pasado y pendiente de resolución. Como en el caso anterior se contemplan aspectos relativos a la digitalización del Ciclo Integral del Agua.

4.- APUESTA POR UNOS SERVICIOS NEUTROS EN CARBONO

Para cumplir con uno de los objetivos marcados en el Plan Estratégico 2017-2030 y la Estrategia de Cambio Climático y Energía 2030 (ECCE2030) aprobada en 2021: la Neutralidad Climática en 2030 de toda la organización

se han llevado a cabo las siguientes acciones:

- Huella de Carbono.
 - Evaluación y certificación de la Huella de Carbono y compra de derechos de emisión. Se ha desarrollado el cálculo, evaluación y certificación de la huella de carbono correspondiente a 2022 (Certificado EQA ISO 14064)
 - Compensación del 6,46% de las emisiones totales.
- Energías Renovables.
 - Compra de Garantías de Origen para el gas natural consumido por SCPSA por primera vez.
 - Implantación de 4 instalaciones de generación FV en la cubierta de 3 Estaciones de Bombeo de Agua Potable.
- Eficiencia Energética.

Susitución de luminarias por nuevas de tecnología LED bajo el programa de ayudas a Entidades Locales de Gobierno de Navarra.

5.- RIESGOS E INCERTIDUMBRES

El Grupo es conocedor de los riesgos e incertidumbres que pudieran afectar a la evolución de sus negocios y tiene establecidos los mecanismos necesarios para su detección y control.

6.- INSTRUMENTOS FINANCIEROS

El Grupo no tiene contratados instrumentos financieros derivados.

7.- PERIODO MEDIO DE PAGO A PROVEEDORES

El periodo medio de pago a proveedores en el ejercicio 2023 ha sido de 37,41 días.

8.- ESTADO DE INFORMACIÓN NO FINANCIERA

Se ha emitido un informe separado que contiene el Estado de Información No Financiera, el cual básicamente incluye la información de la Sociedad SCPSA, y que forma parte del presente informe de gestión consolidado.